

2017

URTEKO MEMORIA

COLEGIO PROFESIONAL DE TERAPEUTAS
OCUPACIONALES DEL PAÍS VASCO/
EUSKADIKO TERAPEUTA OKUPAZIONALEN
LANBIDE ELKARGOA

COLEGIO PROFESIONAL DE TERAPEUTAS OCUPACIONALES
DEL PAIS VASCO



EUSKADIKO TERAPEUTA OKUPAZIONALEN LANBIDE
ELKARGOA

ETOLEREN URTEKO MEMORIA

GASTEIZ, 2017KO OTSAILA.

EDITATZAILEA:

Euskadiko Terapia Okupazionalaren Elkarte Profesionala-ETOLE

EGILEAK:

ETOLEren elkargo-batzordea.

HELBIDEA:

Euskadiko Terapia Okupazionalaren Elkarte Profesionala

65. Posta-kutxa, Gasteiz 01080

Telefona: 644 524 492

Helbide elektronikoa: etole@terapeutas-ocupacionales.es

0. AURKEZPENA

2017. urtea oso urte garrantzitsua izan zen gure lanbidearentzat, terapia okupazionalarentzat eta, ondorioz, ETOLEarentzat eta elkargokide guztientzat. 2017an, terapia okupazionalak 100 urte bete zituen, eta, hori dela eta, nazio mailako proiektu garrantzitsuak, lankidetzaren oso aberasgarriak eta etorkizun hurbilerako proiektuak egin ziren.

Orain arte ETOLEk erabili dituen gardentasun-estandar berberekin lan egiten jarraituko dugu, eta elkargo profesional gisa gure lanbidean, terapia okupazionalan, defendatzeko eta aurrera egiteko ditugun baliabideak eskainiko dizkiegu elkargokideei.

Euskadiko terapia okupazionalaren egoera hobetzeko lanean jarraitzen dugu, lurralde nazional osoko beste elkargo eta elkarte batzuetako gure ikaskideekin batera.

Horregatik, Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie ETOLEekin lankidetzan diharduten pertsona guztiei, terapia okupazionala ezagunagoa eta aintzatetsiagoa izan dadin egin duten lanagatik eta ahaleginagatik.

2018an, ilusioz eta grinaz lan egiten jarraituko dugu gure lanbidearen eta zuen, elkargokideen, alde harresiak eraisten jarraitzeko.

Azkenik, esan behar da memoria batean ezin dela islatu egunez egun egiten den lana, baina azken hilabeteetan lortu diren lorpen garrantzitsuenen zertzeladak eskaintzen dizkizuegu.

Agur bero bat,

Leire López

ETOLEko lehendakaria

1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA:

MISIOA

Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Lanbide Elkargoa (ETOLE) bere elkargokideen lanbidea eta interesak ordezkatu eta defendatzeko helburuarekin sortu zen, euskal gizartearen interes eta beharrekin bat etorritik, eta lanbide soziosanitario horren jardunbide egokia sustatzeko helburuarekin, erabiltzaileek eguneroko bizitzako zereginetan autonomia hobe izan dezaten, bizimodu independentea, egokia eta produktiboa lortzeko laguntza eta laguntza emanez.

BISIOA

a) Terapeuta okupazionalaren funtzioak zabaltzea jarduera-eremu guztietan, pertsonen eta haien osasun fisiko eta mentalaren gaineko jardueretatik hasi eta ingurunea egokitzeraino, autonomia handiagoa eta bizi-kalitate hobe lortzeko.

b) EAEko terapeuten kolektiboa kohesionatzea. Kolektibo hori tradizionalki aktiboa izan da elkarleen eremuan, baina elkargoak sektorearen barruan koordinazioa eta kohesioa sustatzen eta bultzatzen jarraitu nahi du.

c) Profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea, eta zerbitzuetan kalitate handiagoa sustatzea.

GOBERNU BATZORDEA:

- **Lehendakaria:** Leire López Rodríguez
- **Lehendakariordea:** Sergio Pérez Badillo
- **Idazkaria:** Carolina Sánchez Tórner
- **Diruzaina:** Patricia Fernández Paiz
- **Lurraldeetako ordezkariak:**
 - **Araba:** Miryam García Barrueco
 - **Gipuzkoa:** Raquel Ruiz Otero
 - Sandra Pérez Muñoz
 - **Bizkaia:** Xandra Lancho Pintado
- **Kanpo harremanak.** Ruth Esteban Marcos

- **Liburuzaina:** Iratxe Ruiz de Arkaute Gordejuela
- **Arabako prestakuntza batzordea:** Raquel Ruiz Borrega, Leire Atiega Arroyabe, Nagore Salazar Sáez de Vicuña, María Ricarte Eguidazu, Henar Menéndez Caballero, Lorea Castillo Tabernero eta Leire Santana Lazcanoiturburu.
- **Bizkaiko prestakuntza batzordea:** Amaia Goiriena Boyra, Nerea González Corzo, Nerea Matas Sáez eta Janire Ibarrondo Becerril.

2. ELKARGOKIDEAK

2017. urtean, 18 alta eta 8 baja izan dira. Urte amaieran, 185 elkargokide.

Elkargokideek ETOLEk antolatutako batzarretan izandako bertaratzea hau izan da:

Batzarra Galdakaon, 2017/09/16an: 22 elkargokide.



2017an bi kafe-solasaldi ere egin ziren.

Bat martxoaren 24an egin zen, Gasteizen: "TOren Prestakuntza Interesak eta Dibulgazioa". Prestakuntza-interesak eta beste profesional batzuegana iristeko TOren dibulgazio-modu berriak biltzen saiatu zen.

Prestakuntza batzordeak eta dibulgazio batzordeak, ETOLEren Batzordearekin batera, kafe-solasaldi honetan, ikastaro bat baino haratago doan proiektu bat abiarazi nahi izan zuten, eta TOa sustatzeko interesa eta hautagaiak izan zitezkeen pertsonak jakin nahi zituzten, beste profesional batzuen artean eta aurrera eraman zitezkeen ekimenei buruzko ideien artean. Guztira 7 elkargokidek hartu zuten parte.

Hurrengo kafe-solasaldia maiatzaren 5ean egin zen, Bilbon, eta, Bizkaiko prestakuntza batzordea sortu berria zenez, terapeuta okupazionalen prestakuntza-interesak jorratzeko gune bat sortu zen, eta TOen arteko topaleku bat izan zen, beren kezkak adierazi ahal izateko. Guztira 4 elkargokidek hartu zuten parte.

Ç



3. DEFENTSA PROFESIONALA

2017an, 27 kontsulta egin zitzaizkion aholkularitza juridikoari, besteak beste, intrusismoari, legediari eta erakunde ofizialei emateko dokumentuak berrikusteari buruzkoak.

4.-INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.

Ez da zehapen-prozedurarik egin ekitaldi honetan.

5-ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

2017an, ikastaro hau abiarazi zen: **“GIZA DIMENTSIO SEXUALA ETA DISFUNTZIONALTASUN ORGANIKOAK/DIBERTSITATE FUNTZIONALAK: Terapia Okupazionaletik esku hartzeko teoria, hausnarketa eta praktika”**. Ekainaren 3an, 4an, 17an eta 18an Gasteizen egitekoa zen aurrez aurreko ikastaro hori ezin izan zen egin, ez baitziren bete

gutxieneko plazak. Hala ere, Arabako prestakuntza batzordeak aurrerago berriro eskaintzea planteatu zuen.

Sortu berri den Bizkaiko prestakuntza batzordeak ikastaro hau egin zuen:

“LAGUNTZA-PRODUKTUAK: Aplikatzeko aukerak, sorkuntza, teknologia berriak eta emaitzen neurketa”. Ikastaroa urriaren 28an eta 29an egin zen, Bilboko Aita-Menni Errehabilitazio Ospitalean, eta Ikerketa eta Asistentzia Sanitarioko Masterra eta Osasun Zientzietako Doktoretza dituen Thais Pousada García terapeuta okupazionalak eman zuen. Ikastaroaren helburuak hauek izan ziren:

- Terapeuta okupazionalak laguntza-produktuen inguruko ezagutza eguneratzea (definizioak, sailkapena, tipologia) eta hainbat eremutan aplikatzea sustatzea.
- Laguntza-produktu bat agintzeko/eraikitzeko unean kontuan hartu behar diren erabiltzailearen ezaugarrien garrantzia ezagutzea eta zehaztea.
- Laguntza-produktuen emaitzak neurtzeko ebaluazio-ereduei eta -tresnei buruzko oinarritzko ezagutza eskuratzea.
- Esku hartzeko eta autonomia sustatzeko IKT tresnen oinarritzko erabilera ikastea.
- Sormena, material birziklatuen erabilera eta laguntza-produktu pertsonalizatuak eta kostu txikikoak eraikitzea sustatzea.
- Terapia okupazionalak laguntza-produktuen esparruan egindako ikerketari eta esku-hartzeari buruzko esperientziak partekatzea.

Parte-hartzaileen harrera oso ona izan zen, eta ikastaroak puntuazio onak lortu zituen, bai irakaslearen jardunagatik, ezagutzagatik eta baliabide didaktikoengatik, bai antolaketagatik. Parte-hartzaileetako askok gai horri buruzko ikastaro gehiago egin nahi dituzte.

NUEVO CURSO EN BILBAO

**PRODUCTOS DE APOYO:
POSIBILIDADES DE APLICACIÓN, CONSTRUCCIÓN CREATIVA,
NUEVAS TECNOLOGÍAS
Y MEDIDA DE RESULTADOS**

POR THAIS POUSADA GARCÍA.

[TERAPEUTA OCUPACIONAL. MASTER EN INVESTIGACIÓN Y ASISTENCIA SANITARIA. DOCTORADO EN CIENCIAS DE LA SALUD.]

28 Y 29 OCTUBRE DE 2017



6. TERAPIA OKUPAZIONALAREN IKUSGARRITASUNA ETA ZABALKUNDEA

Bizkaiko Osasun Foroa.

2017an, ETOLE Osasun Foroak antolatutako hiru bileratan izan da. Foroan egindako ekintzen artean iazko eskaeren emaitzak daude. Elkargoko kuotak desgrabatzeko eskatzeko idazki bat bidali da, eta beste bat Osasuneko sailburuari, etengabeko prestakuntzaren egiaztapenean homogeneotasunik ez dagoelako.

Terapia okupazionalaren mendeurrena

Aurten hainbat ekitaldi egin dira terapia okupazionalaren mendeurrena ospatzeko. Alde batetik, Espainiako terapia okupazionalaren aitzindariari buruzko dokumental bat egin da hainbat elkargo eta elkarterekin batera.

Dokumental hori Madrilan aurkeztu zen ofizialki martxoaren 15ean, Capitol zinema-aretoetan, mendeurrenaren egunean.

Martxoaren 17an, ETOLEk mendeurrenerako ospakizun bat prestatu zuen Bilboko Ercilla hotelean. Ospakizunera 100 pertsona joan ziren, beste lanbide batzuetako lankideak eta hainbat erakunde publikotako langileak barne. Ospakizun berean, terapia okupazionalarekin izandako esperientziak kontatu zizkiguten hainbat pertsonak, besteak beste, kontzertu txiki bat eman ziguten Música Avanza taldeko kideek.



Urriaren 27an egin zen mendeurrena ospatzeko azken ekitaldia; dokumentala Arabako Caser egoitzan proiektatu zen eta hainbat elkargokide bertaratu ziren.

Bestalde, ETOLEk terapia okupazionala ezagutarazteko eta zabaltzeko bideo labur bat egin zuen. Facebooken 9446 bistaratze ditu, 439 aldiz partekatu da eta Txileko erakusketa

batean erabiltzeko eskatu zaigu.

ETOLeren newsletterrak

Aurten 31 newsletter bidali zaizkie elkargokideei albiste garrantzitsuenei, ikastaroei eta lan-eskaintzei buruzko informazioarekin. Elkargokideen % 48k ikusi dituzte.

ETOLE sare sozialetan (Facebook eta twitter)

2017an zehar gure sare sozialak eguneratzen jarraitu dugu, gure elkargokideekin, beste terapeuta okupazionalekin eta, oro har, publikoarekin harremanetan egoteko modu zuzen eta hurbil bat baita eta gure diziplina zabaltzeko aukera ematen baitugu.



2017ko abenduaren 31n Facebooken
dugun jarraitzaile kopurua: 1632



2017ko abenduaren 31n Twitterren
dugun jarraitzaile kopurua: 940

7. ESTATU MAILAKO LANKIDETZA

2017an ez da mugimendurik egin Espainiako Terapeuta Okupazionalen Elkargoen Kontseilu Nagusian, eta estatutuak onartzeko zain daude.

Era berean, ETOLEk terapeuta okupazionalen erakundeen foroaren lankidetzahitzarmenaren sinatzailea da oraindik ere. Aurten, 3 bilera egin dira, eta lankidetzan aritu gara hainbat proiektutan; esaterako, lanbidearen mendeurrenerako dokumentala egin da, eta Madrilgo Capitol zinemetan proiektatu da. 250 pertsona bertaratu ziren, dokumentaleko hainbat protagonista barne.

Bestalde, SOCINTOri dagokionez, aurten batzar bat egin da eta aurkezpen ofiziala egin da.

8.-LIBURUTEGIA

2017an, zazpi elkargokidek liburutegi-mailegua erabili dute, eta guztira 16 liburu erabili dituzte.

Liburutegiko katalogoan Salvador Simók "Cuaderno de viaje por la Vida" bere azken argitalpenaren 2 ale gehitu dira.

9.-KUDEAKETA EKONOMIKOARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA

2017KO BALANTZE EKONOMIKOA

2017KO BALANTZE EKONOMIKOA

DIRU-SARRERAK.
Elkargokideen kuotak 19.860,71 €
Laguntza-produktuen ikastaroa 1.235 €
Diru-sarrerak, guztira. 21.095,71 €
GASTUAK.

Bulegoaren alokairua. 2.994,75 €	-
Aholkularitza zerbitzuak 3615,86 €	-
Aseguruen primak. 2.429,11 €	-
Batzordeko kideen bidaia-gastuak.	-3.892,85 €
Komunikazioak/telefonoa. 80,04 €	-
Itzulpenak.	-408,15 €
Urteurreneko gastuak 7.164,23 €	-
Bestelako zerbitzuak 1657,22 €	-
Gastuak, guztira. 22.591,14 €	-
AZKEN EMAITZA	
Banku-komisioen gastuak.	-321,93 €
Finantza-emaiza, guztira.	
2017ko ekitaldiaren emaitza. 2.730,43 €	-